

# 2023-2025 EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO GASTEIZKO PLAN INTEGRALA

*Posted on 05/05/2023 by Naider*

# **Naider Gasteizko Udaleko Sustapen Ekonomiko, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailarekin elkarlanean ari da Ekintzailetzari Laguntzeko Plana prestatzen.**

2023-2025 Ekintzailetzari Laguntzeko Plan berria idaztean datza proiektua. Plan horren bidez, teknologia-, energia-, ingurumen- eta demografia-trantsizio sozialari erantzungo dion jardueraren proposamen bat identifikatuko da, kontuan hartuta udalak ekintzailetzaren arloan egin duen ibilbidea, tokiko ekosistema eta autonomia-esparrua.

Proiektuaren esparruan, Gasteizko testuinguru ekintzailearen azterketa egingo da. Azterketa horretatik abiatuta eta hiriaren errealitate ekintzailea ezagututa, egungo tokiko sare ekintzailearen diagnostikoa egingo da. Sare horrek, kabineteaz gain, ekosistema ekintzailearen pertzepzioari buruzko azterlan bat osatuko du.

Planaren esparru estrategikoaren garapenak honako hauek bilduko ditu: PIPAE 2023-2025 Planaren xedea, 2025eko egoera ekintzailearen ikuspegia, helburu estrategikoak, xedearekin eta Agenda 2030arekin bat datozenak, eta lankidetzarako gobernantza-eredu multiagentearen proposamena.

